# ARAUTEGIA

## BOLEIBOLA 2025

Eusko Jaurlaritzaren Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzak, Euskadiko Boleiboleko Federazioarekin lankidetzan, EUSKADIKO XLII. ESKOLARTEKO KIROL JOKOAK antolatuko ditu, 2025ko maiatzaren 24ean Gasteizko Aranalde kiroldegian (Araba). Hona hemen arautegia:

### 1. JOKATZEKO MODUA

Sistema: triangeluarra.
Infantil mailak : 2011eta 2012ean jaiotako neska-mutilak.

### 2. EKIPOEN OSAKETA

Talde bakoitzak gehienez ere 18 jokalari izango ditu, lehen eta bigarren entrenatzaileez gain.
Partida guztietan taldeko kideen eskola lizentziak aurkeztu beharko dira, edo bestela, parte-hartzaileen triptikoa, dagokion Foru Aldundiaren zigilu eta sinadurarekin. Horiek aurkezten ez badira, NAN edo pasaporte originala aurkeztu beharko da aktan inskribatu ahal izateko, bestela, ezin izango du ekintzan parte hartu
Talde bakoitzak bi kamiseta joko edukitzea beharrezkoa da, ez dadin gertatu bi ekipok kamiseta berdinak eramatea.

### 3. PARTIDUAREN IRAUPENA

Hiru setetik gehien irabazten dituen ekipoa izango da irabazle. Seta irabazten du 2 puntuko aldea ateraz 25 puntu lehen lortzen dituenak. Dena den, hirugarren

seta bi puntuko aldea ateraz 15 puntu lehen lortzen dituenak irabaziko du, baina ez dago gehieneko puntu mugarik.

Set bakoitzean 6 aldaketa egin daitezke gehienez, eta bi hutsarte eskatu ahal izango dira.

## BALOIA ETA SAREAREN ALTUERA

Baloia  Molten VSM4000  izango da.

Sarearen altuera hau izango da :

Nesken kasuan : 2,10 m.

Mutilen kasuan : 2,24 m.

## 4. SARIAK

Ondorengo sariak emango dira:

Garaikur bana lehen, bigarren eta hirugarren sailkatutakoei.

## 5. EZBEHARREN AURREAN

Lesio edo ezbeharrik sortu ezkero nahi eta nahi ez antolakuntzak kirol eremuan izango duen arduradunarengana jo beharko da. Honek eman beharreko gainontzeko pausuak bideratuko ditu.

## 6. AZKEN OHARRA

Arautegi honetan azaltzen ez diren kontu guztietarako, ondorengo testuak hartuko dira kontuan:

a. 14/ 1998 LEGEA, Ekainaren 11koa, Euskadiko kirolarena.
b. 125/2008 DEKRETUA,  Uztailaren 1ekoa,  Eskola Kirolarena.
c. 391/2013 DEKRETUA, uztailaren 23koa, eskola-kiroleko lehiaketen diziplina-araubideari buruzkoa
d. AGINDUA, 2025eko urtarrilaren 8koa, Jaurlaritzako Lehenengo Lehendakariorde eta Kultura eta Hizkuntza Politika sailburuarena,

2025eko Euskadiko Eskolarteko Kirol Jokoen XLII. edizioaren deialdia egiteko dena.

e. Ebazpena, 2025eko otsailaren 4koa, Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren zuzendariarena, 2025eko Euskadiko Eskolarteko Kirol Jokoen XLII edizioko lehiaketako epaile bakarra izendatzen duena.
f. Boleiboleko Euskal Federazioaren Arautegian erabakitakoa.

Euskara eta gaztelaniazko araudien interpretazioetan ezberdintasunak izan ezkero, jatorrizko hizkuntza lehentasuna izango du.